



Padel-aretoa, Urnietan

Egitasmo berria eta anbizio handikoa martxan jarriko da 2022an, Urnietako Erratzu industrigunean / 2-3



Jon Izagirre gogoan

Urte hasiera ilundu zuen urnietar gaztearen heriotzak, futbol munduan bereziki / 13

**Andoaindarren %20a
eta urnietarren %24a
kutsatu da,
pandemia hasi
zenez geroztik / 8-9**

**Nerea Tuduri
Andoaingo idazleari
elkarrizketa, poesia
liburu berrienaren
harira / 10-11**



EGAPE

Urnietarren ikastola
publikoa

www.egape.eus

MATRIKULA



BILERA INFORMATIBOA

Urtarrilak	2 URTE
13	17:00 Etxeberri
Urtarrilak	DBH
12	17:00 Lekaio



Fernando Gaspar, Lander Gaspar, Mikel Ochoa, Ainhoa Gaspar eta Mikel Urzelai. ARIMA PADEL ELKARTEA

Alba Cabrera Jauregi, Mikel Arberas
URNIETA

Elitekoen eta dirudunen kiroltzat jo izan da orain arte padela, baina, azken urteetan, hazkunde handia eduki du Euskal Herrian. Kirol dibertigarritzat eta erraztzat dute adituek, hiruzpailau aldiz joanda neurria hartzeraino. Ez omen da kirol exigentea, joko-erritmoaren arabera, jakina, eta 200 metro karratutan eutsi behar zaio jokoiari. Helduen artean zaletasun handia eragin du pilotaren joan-etorriak.

Esanak esan, Euskal Herrian berriki sartu da padela. 1991. urtean Madrilen Padeleko Federazio Internazionala sortu bazen ere, 1993. urtera arte ez zen guztiz Euskal Herrian finkatu. Egun, neurri gero eta handiagoan praktikatzen den kirola da, baita nazioartean ere.

Arestian aipatutako hazkundeari erantzuteko prest agertu dira Fernando, Ainhoa eta Lander Gaspar, Mikel Urzelai, Mikel Ochoa eta Xabier Goikoetxea. Proiektu ikusgarria egingo dute udaberrirako: Arima Padel Elkartea.

Zerk eraman zaituzte horrelako proiektu batean murgiltzera?

“Padela herrietara gerturatu nahi dugu Arimarekin”

MIKEL URZELAI ETA AINHOA GASPAS ARIMA PADEL ELKARTEA

Udaberrirako aurreikusten da Arima Padel Elkartean irekiera. Padelaz gain, beste hainbat eskaintza bermatuko ditu, tartean: taberna/pizzeria, gimnasioa, osteopatia...

Mikel Urzelai: Donostiako Padel 4koak gara eta, beraz, padelgune baten kuadeaketan ezagutza daukagu, baita esperientzia handia ere. Premia bati erantzun behar geniola jabetu ginen, kirol

honetan, gaur egun, eskaria handiagoa delako eskaintza baino.

Gutxinaka, bideragarritasun-planak eta azterketak egiteari ekin genion. Hasiera batean,

gure proiektua Hernanin gauzatzea pentsatu genuen; izan ere, pabiloi egokia aurkitu genuen egitasmoa martxan jartzeko, baina udaletxetik ez ziguten lizentzia eman.

Ainhoa Gaspar: Donostiatik ateha eta herrietara gerturatu nahi dugu padela. Gauzak horrela, Hernaniko ezezkorearen ostean, Erratzun (Urnietan) begiratzan hasi eta, bat-batean, leku apropos batekin egin genuen topo. Padelari buelta bat eman nahi diogu, eliteko kirola delako ideia apur bat eraldatzeko.

Gure balioak kiroltasuna, gertutasuna eta euskara izango dira. Bizimodu aktiboa sustatu nahi dugu, eta, horregatik, garbi genuen padelaz gain, kirol aukera gehiago eskaini nahi genituela. Horretarako, jende gazteak osatzen du Arimako taldea, freskotasuna eman nahi baitiogu espazioari. Finean, herriarrei gerturatu nahi diegu Arima.

Zerekin egingo du topo Arimara gerturatzeko denak?

A.G.: Hasteko, gure oinarria padela izango da eta sei pista egongo dira eskuragarri, oso kalitate handikoak.

M.U.: Pista guztiak panoramikoak izango dira, alegia, beirate bakarrak inguratuko du pista, koskarik gabe. Gainera, horietako bik kanpo-jokoa izango dute (*juego exterior* delakoa), hau da, pilota zelaitik ateratzeko aukera egongo da, jokoa eten gabe.

A.G.: Horrez gain, entrenamendu pertsonalari bideratutako gimnasio txiki bat eta fitness saio gidatuetarako gela bat izango dira, hala nola, K-Stretch, pilates eta abar jarduerak egiteko.

Zerbitzu oso bat eskaintzeko asmoz, osteopata joateko aukera ere izango dute bezeroek. Padelan jada badugu profesional bat gurekin lanean, eta horixe bera egongo da Urnietan ere.

Bestalde, taberna egongo da eta, bertan, gosariak, eguneko platerak eta pintxoak emateko asmoa dago; terraza izango du gurean, goxotasuna emateko giroari. Hori bai, iluntze partean, pizzeria bihurtuko da gure zerbitzua. Zerbait berri-tzailea izango da, ezberdina.

Mugimendua eman nahi diegu tabernari. Industrialde batean kokatzen da Arima eta bertako langileei begira ere lan egin nahi dugu, zerbitzu berri-tzaileak bermatzeko: prezioak batez bestekotik apur bat jaitsiko ditugu. Pizzeriari dagokionez, Hernaniko La Squadrarekin elkarlanean irekiko dugu.

M.U.: Inguruan lanean diharduten enpresen ordutegiak eza-gutu nahi ditugu, beren premietara ahalik eta hobekien egokitzeke.

Pabiloi handia beharko duzue horrenbeste gauza antolatzeke, ezta?

M.U.: Bai, 2.000 metro karratu izango ditu gutxi gorabehera. Polikiroldegi txiki baten moduan funtzionatuko du kasik.

Zerbitzuaren prezioari begiratu diote askok.

M.U.: Betiko kontua da. Lau pertsona behar dira jokoa osatzeko, pista hartzeko. Hau da, errentagarria izateko, gutxieneko prezioa jarri beharra dago. Goizetan, 7 eurotan, ordu eta erdiz aritzeko aukera izango dute bezeroek. Arratsaldean, ostera, 10,50 euroko kostua izango du gutxi gorabehera. Hala ere, prezioa finkatzeke dago.

A.G.: Asko dira pista urte osorako alokatzen dutenak. Beraz, oro har, ia urte osoan, arratsaldetan, lauretatik aurrera, alokatutakoek jokatu ohi dute, azken orduko aldaketak alde batera utzita. Goizetan, libreago egon ohi da.

Padel klaseak egingo al dira?

A.G.: Jakina, eta garrantzi handia emango diegu horiei, gainera. Jendea animatzea, jokoan hobetzea eta komunitatea sortzea nahi dugu. Erraztasunak eman nahi dizkiegu inguruko herrietako padelzaleei. Izan ere, orain arte, kirol hau praktikatzeko edota klaseak jasotzeko hiri handietara jo beharra zegoen, baina hori guztia aldatu nahi dugu. Horrez gain, asteburuetan, askotariko ekitaldiak dinamizatzen saiatuko gara.

Aukera egongo al da materiala alikiltatzeko eta erosteko?

M.U.: Padelnuestro izeneko marka batekin akordioa dugu Padel4n eta Urnietara ere ekarri nahi dugu, palak, arropa eta oinetakoak erosi ahal izateko. Horrez gain, materiala alokatu ahal izango da.

Txapelketa ofizialez gain, zerbait gehiago ere antolatuko al duzue?

M.U.: Bai. Mota askotako hainbat txapelketa antolatu nahi dugu: mistoak, neskenak, mutilenak, lagunartekoak etabar. Berrikuntza eta aurrerapen gisa, asteazkenetan, liga moduko bat sortzeko asmoa daukagu. Hots, asteazken arratsaldeetan, pintxopotea, padel-joko alternatiboarekin uztartu nahi dugu.



Erratzu auzoan izango du elkarteak bere egoitza. AIURRI

Eta aipatutako guztia errazago kudeatzeko, mugikorreko aplikazioa ere izango da.

A.G.: Padel4n jada darabilgun baliabidea da. *"Me apunto"* delakoak ditugu, alegia, partida irekiak, norekin jokatzetik ez daukaten kideek padelean ari-

tzeko aukera eduki dezaten. Hori horrela, partidak orekatuak izan daitezten, aurrez zehaztutako mailetan antolatuta dago. Nola neurtu hori, baina? Aurki irekiko dugun Whatsapp taldean izena eman beharko du interesa duenak; ondoren, monitore batekin 15 bat minutuko frogatxo egingo du, zein mailatan kokatuko den erabakitzeke. Horrela, bere kategoriako partidak agertuko zaizkio aplikazioan.

M.U.: Iraungitzen ez den dirukopurua sartuko du erabiltzaileak aplikazioan, partidetan

izena eman ahal izateko. Bertan behera geldituz gero (gutxieneko pertsona-kopurura ez delako iristen, adibidez), dirua itzuli egiten da unean bertan. Hori ez ezik, gainerako zerbitzuetan erreserbak egiteko ere erabilgarria izango da. Hitz laburrez,

"JENDEA ANIMATZEA, JOKOAN HOBETZEA ETA KOMUNITATEA SORTZEA NAHI DUGU"

Arimak bermatzen dituen eskaintza guztiak bateratzen ditu aplikazioak.

Noiz irekiko ditu ateak Arimak?

A.G.: Espero dugu, beranduenez, maiatzan irekitzea.

M.U.: Prozesuan, zenbait aldaketa egin behar izan ditugu proiektuaren denbora-lerroan. Batetik, hasierako ideiarekin konparatuta, asko aldatu da egitasmoaren planteamendua; hobera, noski. Bestetik, araudiari dagokionez, irizpide batzuk bete behar genituen Udaletxean aurkeztu ahal izateko. Jada gain-begiratu dute proposamena, baita ontzat eman ere. Lizentzia emango digute, baina ez dakigu zehatz-mehatz noiz.

A.G.: Inguruko enpresei, gurekin harremanetan jartzeko gonbidapena luzatzen diegu beraien ordutegi eta beharrei bideratutako zerbitzua eskaini ahal izateko.

Pista finkoa, klaseak edota informazioa nahi izanez gero:

arimapadel@gmail.com
Instagram: @arimapadel

Zure publizitatea, hemen

943 300 732

publizitatea@aiurri.eus



La Palmari laguntzeko azoka solidarioa

Guztira 570 euro bildu ditu Etxeberri elkarteak eta La Palmako bizilagunei bideratuko zaizkie irabaziak, elkartasunez. Abenduaren 29an eta 30ean izan zen azoka, eta bertan Andoaingo La Palmaren aldeko taldeak ere parte hartu zuen

Erredakzioa URNIETA

Gabonetako azoka solidarioa antolatu zuen iragan urte amaieran Etxeberri auzo-elkarteak. Hala, abenduaren 29an nahiz 30ean, bigarren eskuko objektuez bete zen herriko Etxeberri plaza, eta eskuratutako dirua La Palmako bizilagunei bideratu zaie. “Ez zen jende askorik etorri”, dio Estela Cuevas antolatzailerak, “beharbada, opor garaia zelako, edota positibo-kopuruak nabarmenki egin zuelako gora egun horietan”. Andoaingo azoka solidarioako taldea izan zuten lagun eta, Etxeberri plazako kidearen hitzetan, “elkar eza-gutzeko baliagarria izan zen hitzordua”.

Erdia saltzea lortu zuten, guxti gorabehera, eta, orotara, 570 euro bildu zituzten La Palmara bidaltzeko: “Oso harrera ona izan genuen herritarren partetik; askotariko objektuak jaso genituen azokan ipintzeko, arropatik hasi eta haurrentzako jostailuetara bitarte”.

Biltegi batean dituzte gordeta azoka solidarioan saldu ez diren bigarren eskuko objektuak. Hori horrela, zenbait eragiletara bi-



Etxeberri plazako auzotar taldea Azoka Solidarioa ospatu zen egunetan. ETXEBERRI A.E.

deratuko dituzte, besteak beste, SOS Arrazismora edota Caritaserak. Lan handia eskatzen duen ekimena da elkarteak azaldu duenez, eta, batez ere, objektuen bilketa izan da zamatsuenak Cuevasen hitzetan: abenduan, aste-ro-astero, bi egunez elkartzen

ziren bigarren eskuko objektuak jasotzeko. Halere, aberasgarria izan da esperientzia Etxeberri elkartearentzat, baina, aurrera begira, haien ustez, hobe da urteko beste sasoi batean egitea, “Gabonen aurretik-edo, jende gehiago erakarri ahal izateko”.



Andoaingo eta Urnietako boluntarioak elkarrekin atera zuten argazkian. ETXEBERRI AUZO ELKARTEA



AEK

Dronak hizpide Zilegi Eskolan

Dronei buruzko ikastaroa antolatu du AEKk, Iñaki Etxeberriaren eskutik. Urtharilaren 17an izango da hitzaldia, 18:00etatik 20:00etara, Urnietan AEK-k duen lekalean. Dron motak, indarrean dagoen legedia eta pribatutasuna izango dira hizpide. Saioa doakoa izango da, baina komeni da aldeztatik izena ematea: zilegieskola@ae.eus edo 663 043 314.



AIURRI

Prebentzio neurriak beteta

Distantzia hartuta eta musukoa jantzita, horrela hurbildu ziren haurrak Errege Magoengana. Urnietara arratsaldean iritsi ziren, eta Udaltaldean pilotalekuan harrera egin zieten aldeztatik izena emanda zeuden Urnietako haurtxoei. Ez ohikoa izan arren, herriko haur askorentzat ahaitezina izan zen.



AIURRI



Dozenaka lagun elkartu ziren Andoainen, larunbat arratsaldean. AIURRI

Presoen eskubideen aldeko hitzordu bikoitza

Andoainen, Urnietan eta Euskal Herriko berrehun udalerrian presoen eskubideen aldeko mobilizazioak deitu zituen Sare mugimenduak. "Elkarbizitarako. Bakerako. Etxerako bidean" lelopean, Bilboko manifestazioaren ordezkari bilakatu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Pandemia tarteko, Sare mugimenduak Bilbon antolatu ohi zuen manifestazio jendetsua alde batera utzi eta haren ordezkari mobilizazioak deitu zituen Hego

Euskal Herriko lau hiriburu eta dozenaka udalerrietan. Andoainen manifestazioa egitea erabaki zen, eta Urnietan, aldiz, kalejira. Bietan salbuespenezko espetze politika bertan behera

uztea eskatu zuten. Sarek, bestalde, Bilbon jardunaldia antolatu zuen Euskalduna jauregian eta "ordezkaritza politiko, sindikal eta sozial zabala izan dugulako" poza agertu zuten.

Andoainen eta Urnietan



Kantuan eta bertsoan aritu ziren Urnietako San Juan plazan. AIURRI

Urnietan elkarretaratzea Adierazpena irakurtzeaz gain, Fermin Argiñarenak bi bertso bota zituen. Musikaz lagunduta, bestalde, bi kantu abestu zituzten San Juan plazako ekitaldian.



Goikoplazan hasi eta Zumea plazan amaitu zen manifestazioa. AIURRI

Andoainen manifestazioa Andoainen elkartu ziren asko eta asko Bilbora joango lirateke, egoera epidemiologikoak aukera emanez gero. Manifestazio jendetsua izan zen, larunbatekoa.

Elkarbizitarako. Bakerako. Etxerako bidean

KOLDO TAPIA SAREREN IZENEAN URNIETAN IRAKURRI ZUEN ADIERAZPENA

Bilboko, Baionako eta Euskal Herriko ehunka herritako kaleak bete ditugu gaur. "Elkarbizitarako, bakerako, etxerako bidean" lelopean, salbuespen legediarekin amaitu eta aurrera egiteko milaka herritar kalera irten gara. Euskal presoen, iheslarien eta deportatuen eskubideak aldarrikatzeko.

Horrek hunkitu egiten gaitu. Herri solidarioa gara, eta hala erakutsi dugu gaurkoan ere. Horregatik, berriro ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu hemen egoteagatik. Eta baita, 2021. urte osoan zehar egin ditugun mobilizazio eta

ekimenetan gurekin egoteagatik ere. Ez da urte erraza izan, baina espetze politikari dagokionean, urte luzez espero genuen aldaketaren lehen zantzuak ikusten hasteko aukera izan dugu. Hori egunerokoan maila politikoan, sindikalean, sozialean eta instituzionalean lortutako adostasunei, eta batez ere, urte luzeetan herritarrok kalean eginiko aldarrikapen eta lanari esker lortu dugu. Elkarrekin urratsak emanez lortu dugu. Eta datorren urte honetan ere, bide berean urratsak emanaz, aldaketa horiek espetze politika berri bat oinarri izatea lortuko dugu.

Izan ere, hasi baino ez gara egin. Oraindik euskal presoen %50a Euskal Herrikan kanpo diren espetxeetan dago. 3 gradua eskuratzeko edota irteera baimenak eta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko blokeo sistemiko baten aurrean aurkitzen gara. Larriki gaixo diren 19 preso daude oraindik euren osasunerako eskubidea urratua dutenak. Eta zer esanik ez, adinduak diren presoen edota motxiladun haurren eskubideei dagokienean. Salbuespen legediak erpin asko ditu eta benetako aldaketa batek guztiei eman behar die aterabidea.

Horregatik, gaur, salbuespenezko espetze politika, bere ertz guztiekin eta gehiago luzatu gabe, bertan behera uzteko aldarria atera nahi izan dugu kalera. Berau

baita, euskal presoen etxerako bidea garatzeko oztopo eta muga nagusia. Berau baita gaur defendatzen ditugun eskubideen urraketa bermea. Eta indarrean jarraitzen duen egun bakoitzeko sufrimendua sortzen jarraitzen duena.

Izan ere, elkarbizitza ezinezkoa izango da salbuespen-legeriak eragindako eskubide-urraketa desagertzen ez bada. Eta bide berean, etxeratze prozesua gauzatu dadin eta espetze-politikan hain beharrezkoa den erabateko aldaketa eman dadin, ezinbestekoa da elkarbizitzaren eta bakearen bidean aurrera egitea.

Jarrai dezagun pausoka, elkarbizitarako, bakerako eta etxerako bidean.

Elkarrekin, lortuko dugu.

IRITZIA

ELA, SATSE, LAB, CCOO, UGT GIPUZKOA

ELA, SATSE, LAB, CCOO eta UGTk manifestazioak deitu dituzte urtarrilaren 23an hiriburuetan, Osakidetzaen egoera larria salatzen

Lehen mailako arretak kolapso egoeran jarraitzen du, pandemiaren aurreko egitura gabeziak direla eta. COVID protokoloetan egindako azken aldaketek egoera horren ondorio dira.

Urtarrilaren 23an Osakidetza langileak eta biztanleria kalera aterako dira sindikatuek deituta, lehen mailako arretak duen kolapso egoera eta ospitaletako arretaren gainkarga salatzen eta egoera horri aurre egiteko berehalako neurriak eskatzeko. Horretarako, manifestazioak egingo dira eguerdian Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

Gogora dezagun abenduaren 22an kontzentrazioak egin zirela Osakidetza oinarritzako osasun zentroetako egoera jasanezina salatzen. Hala ere, egoerak okerrera egin du.

Egoera ez da pandemiaren ondorio. Gaur egungo osasun krisiak are gehiago larriagotu du pandemiaren aurreko egoera estruktural bat. 2019an, lehen arretako langileek hiru greba egun egin zituzten orduan bizi zen egoeraren larritasuna salatzen. Gaur egun, bi urte geroago, okerrera egin du egoerak.

Kolektiboaren lan baldintzak eta herritarrei eskaintzen zaien arreta kalitatea areago prekarizatzen gain, pandemia aitzakia bihurtu da Osakidetza murrizketak aplikatu eta pazienteak osasun publikora iristea zailtzeko. Horrekin guztiarekin batera,

plangintzarik eza, errefortzurik eza eta pandemiaren kudeaketak eragindako lan kargaren igoera esponentziala direla eta, lehen arreta soken kontra jarri du. Lehen arreta eraisteko programatutako estrategiak aurrera jarraitzen du, eta Osakidetza COVID 19a erabiltzen jarraitzen du egiturazko defizita estaltzeko.

Horrela bakarrik ulertzen da, lehen olatutik ia bi urtera, seigarren olatuari baliabiderik, antolakuntzarik eta plangintzarik gabe aurre egitea; duela bi hilabete eskas Osakidetza 4.000 profesional alde batera uztea erabaki izana; duela egun batzuk egoiliarrei doan lan egitea eskatzen ari izatea; txertaketa eta miaketa-ekipoak desegin izana; bajak, oporrak eta bestelako absenteziak ez ordezkatzeko; kutsatzeak gora doazenean, lehen arretako zentroen ordutegiak murriztea erabaki izana; eta abar luze bat.

Ospitaleko arreta ere ez da egiturazko arazo horietatik libratzen. ZIUak gero eta tentsionatuago daude; lan-kargak nekagarriak dira; plantillaren eskasia eta langileen txandakatze handia ere nekagarriak dira. Egoera horren isla ona dira larrialdi-zerbitzuak, lehen arretaren kolapsoaren ondorioz lan-karga nabarmen handitu baita.

Egoera kezkarria izan arren, Eusko Jaurlaritzak ez du urratsik

egin aipatutako arazo larriak konpontzeko. 2022rako aurrekontuak osasun arloko inbertsio bat aurreikusten du, 2021ean benetan gastatutakoa baino 16 milioi euro gutxiago gastatzea ekarriko duena.

Premiazkoa da Osakidetza aurrekontua handitzea EBko batez bestekora iritsi arte (BPGren %7), horren % 25 lehen arretara bideratuz; plantillak berehala indartzea eta giza baliabide nahikoz hornitzea kategoria guztietan, milaka plaza sortuz aldi baterako milaka langile finkatzeko, gehiegizko aldi baterako kontratazioarekin amaitzeko eta lan-kargak arrazionalizatzen; gainera, premiazkoa da lehen egunetik absentsia guztiak ordezkatzeko; azken batean, osasun publikoa eta, bereziki, lehen arreta lehenestera eta indartze bideratutako estrategia bat, hamarkada bat baino gehiago daramatzan desgite programatuarekin alderatuta.

Egoera salatzen eta irtenbideak eskatzeko, urtarrilaren 23, 12:00etan hasita, manifestazioa deitu dugu Donostiako Bulebarretik. Osakidetza langileez gain, dei egiten diegu herritarrei, baita mugimendu sozialei ere. Osasun publikoa bizi aseguru kolektiboa dugu eta, zalantzarik gabe, defendatu behar dugu. Horregatik, egoera aldatzeko pausorik ematen ez bada, mobilizazioak areagotu egingo ditugu.

eguzki IRTIZIA



EGUZKI TALDEA ANDOAIN

RENFEren aldiriko zerbitzuetan bada gaizki edo oso gaizki doan zerbait



Adif-Renfe tren bat. UT.209

RENFEren aldiriko trenen Orialdoko erabiltzaileek 2021a gogoratuko dugu zerbitzuak hondoa jo zueneko urtea bezala. Askoz beherako, askoz okerrago, ezin.

Batez ere azken hiru hilabeteotan oso ohikoa da trenak garaiz ez iristea. Atzerapenak sarri hamar minutukoak izaten dira, baina hamabost edo hoge minutukoak ere ez dira arraroak.

Batzuetan, zerbitzuak bertan behera gelditzen dira. Horren ondorioz, atzerapenak areagotzen gain, bi zerbitzuen erabiltzaileok bakar batean metatzen gara. Egunotan ikusi ahal izan ditugun irudiak ez dira eredu-garriak, ez, ditxosozko birusaren kutsadura-arriskua saihesteko.

Baina atzerapenak metatzeaz eta hainbat zerbitzu bertan behera uzteaz gaiz, informazioa falta da, pantaila eta teledierazleek

ez dute funtzionatzen, bat-batean itzalaldiak gertatzen dira...

Laburbilduz: Gipuzkoako RENFEren bada gaizki doan zerbait, oso-oso gaizki, eta horren ondorioz zerbitzuaren kalitatea gutxieneko historikoetara jaitsi da.

Gauzak horrela, herritarrek aldiriko tren-zerbitzuetan pairatzen ari diren egoera ikusita, Eguzkik Andoain, Urnieta eta Hernaniko Udalei zera eskatzen die: RENFERi modu formalean eska diezaiotela zerbitzua behin-goz duintzeko eta orain dela ez gehiegi zuen kalitatea, behintzat, lehenbailehen berreskuratzeko.

Halaber, Espainiako Gobernuak Euskadiko Autonomia Erkidegoan duen ordezkari Denis Itxaso jaunari, RENFEk Gipuzkoan duen funtzionamenduaren arduraduna ere baden neurrian, zera eskatzen diogu:

- Azalpenak emateko aldiriko tren-zerbitzuak Gipuzkoan izan duen kalitate-galeraren gainean.
- Estatuaren Gobernuari errealtate horren berri emateko, neurriak har ditzan eta zerbitzuaren kalitatea lehenbailehen berreskura ditzan.

"ZERBITZUAREN KALITATEA GUTXIENKO HISTORIKOETARA JAITSI DA"

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Golenia Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Meltxor, Baltasar eta Gaspar urtarilaren 5ean, udaletxeko balkoian eskaini zuten adierazpenean. AIURRI

Errege Magoen etorrera

Hiru Errege Magoek auzoz auzoko ibilaldia egin zuten ibilgailu batean gaineen. Eta Andoaindik alde egin aurretik, Udaletxeko balkoitik, dozenaka lagun aurrean adierazpena egin zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Pandemiaren oldarraldi berri honetan, haur eta familia asko etxean zeuden, eta hori dela eta, Errege Magoen kalejira ibiltaria izan zen. La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta, hiru protagonistak ibilgailu batetik haurrak agurtzen aritu ziren. Segidan udaletxera hurbildu ziren, han zain zituztelako hainbat haur eta familia. Egoera berezian bada ere, Kabalgata Andoainean egin ahal izan zen.



Pajeak Goikoplazan, Errege Magoei begira. AIURRI



Goizeko 08:30ak aldera Oria ibaiaren ur maila espaloira iristen zen. AIURRI

Ezusteko ur mailaren igoerak ez zuen kalte handirik eragin

Ura Zumea kaleko espaloira iritsita, dozenaka haur eta gaztek zeharkatu zuten ikastolara daraman bidea

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Egun euritsua izan zen igandekoa, baina ez zen espero Leitzaran eta Oria ibaien ur mailak halako igoera izatea. Aiurritik lehen irudiak zabaldu eta gutxira Zumea kaleko hainbat merkatarik neurriak hartzen hasi ziren. Gau osoan zehar euria egiten jarraitu zuen, eta Zumea kaleko gara-jeetara ura sartu zen. Oria ibaia-

ren ur maila espaloira iristen hasi zen, goizeko 06:00ak aldera. Oria bizi-bizi zihola, eta ura oinezkoengana iristen ari zela, dozenaka haur eta nerabek Zumea kalea eta Langara zubia zeharkatu zituzten. Ikastolara bidean ez zen arriskua ohartarazten zuen seinalerik ageri. Zorionez, goizak aurrera egin ahala, ur maila jaisten hasi zen.



Gara-jeetara sartzeko plastikoa jarrita zegoen, Espigoaren inguruan ez. AIURRI




Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analisiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK

w w w . a i u r r i . e u s



Larunbat gauean hainbat merkatarik prebentzio neurriak hartu zituzten. EHB



Urdinez, 7 egunetako intzidentzia-tasa. Berdez, positibotasuna. Arrosa kolorez, egindako probak. C19ANALISIA

Seigarren olatuaren gailurrera iritsi gara?

Pandemian zehar, batez ere, bi adierazle erabili izan ditugu intzidentzia-tasak eta positibo kopuruak ondorengo egunetan izango duten joeraren berri jakiteko: 7 egunetako intzidentzia-tasa eta positibitatea

Aiurri komunitatea
Urko Vallejo / C-19 Analisia
ANDOAIN

Esan bezala, bi adierazle erabili izan ditugu Koronabirusak ondorengo egunetan izango duten garapenaren berri jakiteko:

- 7 egunetako intzidentzia-tasa: 14 egunetakoak baino atzerapen txikiagoa du, eta ondorioz, lehenago ematen digu positibo kopuruaren joeraren berri.
- Positibitatea (positiboen portzentaia, egiten diren probekiko): adierazle honen joera aldaketa, aurreko olatu guztietan,

intzidentziaren joera aldaketaren aurrekaria izan da.

Orain arte, bi adierazle hauek oso fidagarriak izan dira, intzidentzia-tasaren joera aldaketak antzemateko. Aurreko olatu guztietan, positibitatea txikitzen izan da lehenik, eta 7 egunetako intzidentzia-tasa ondoren.

Artikulua ilustratzen duen grafikoan ikus daitekeenez, gaur egun, 7 egunetako intzidentzia-tasa jada egonkortu dela dirudi, baina positibitateak handitzen jarraitzen du. Zer gertatzen ari da? Hainbat gako.

Benetan egonkortzen ari dira positiboak?

Ez, oraindik ez, behintzat. Positibitatea ezezik, baditugu beste seinale batzuk, egonkortze hori zalantzan jartzen dituztenak.

Autotest gutxiago egiten ari gara

Eguberrietako lehenengo egunetan asko hazi zen etxean egindako autotesten kopurua, baina abenduaren 29az geroztik kopuru horrek nabarmen egin du behera. Horri, azken egunetan Osakidetzak egin dituen proba

kopurua asko txikitu dela ghitzen zaio (ikus grafikoa), besteak beste, urtarrilaren 6a jaieguna zelako (jaiegunetan proba gutxiago egiten dira). Eta proba gutxiago egiten badira, positibo gutxiago antzematen dira.

Autotestek positibitatean eragiten dute

Autotestak egiten direnean, hauek positiboak direnean bakarrik jo ohi dugu Osakidetzara, proba ofiziala egitera. Ondorioz, Eguberrietan positibitatea puztuta zegoen, emaitza negatiboa ematen duten autotestek ez baitute proba kopuru ofizialean eraginik.

Azken egunetan autotest kopurua jaitsi denez, positibitatea orain ez dago horren puztua; eta hala ere, positibitateak handitzen jarraitzen du. Horrek detektatzen ez diren positibo kopurua nabarmen handitzen ari dela adierazten du.

Miaketa-protokoloa aldatu da

Abenduaren bukaeraz geroztik ez gintuzten, orokorrean, Osakidetzatik deitzen, harreman estua izan ginela ohartarazteko edota proba egiteko hitzordua emateko. Guk egin behar genuen hori. Joan den asteartetik aurrera, gainera, Osakidetzak ez die, zaurgarriak ez diren eta harreman estua izan dutenei probarik egingo. Protokolo berri honek positibo ofizial murrizketa oso handia ekarriko du.

Aurrekoa gutxi balitz, autotesten inguruko protokoloa ere aldatu zuten astelehenean. Autotestetan positibo ematen badugu ere, ez dugu Osakidetzara ohartarazi behar, baldin eta laneko baja behar ez badugu. Horregatik, asko izango dira autotest bidez positibo izango direnak, baino intzidentzia-tasan eraginik izango ez dutenak.

Antigenoen bidezko probak lehenesten dira orain

Abenduaren bukaerako miaketa-protokoloaren aldaketarekin batera, askoz ere antigeno proba proportzio handiagoa egiten ari da orain Osakidetzara. Eta antigeno probak oso fidagarriak badira ere, PCR probek baino epe txikiagoan ematen dute positibo. Ondorioz, lehen PCR-ekin positibo ziren proba batzuk, orain antigenoen bidezko probarekin negatibo izaten ari dira.

Irizpide berriak ikastetxeetan

Joan den astelehenetik aurrera, umeek ez dute berrogeialdirik ezta probarik egin beharko ikasgelan positibo bat edo batzuk agertzen badira ere. Horrek, hala beharrez, positibo gehiago ekarriko ditu; eta ez bakarrik umeen artean, baizik eta ume horien senitartekoen artean ere. Positibo horiek ez dute, orokorrean, Eusko Jaurlaritzaren estatistiketan eragingo, baldin eta sintoma larriarik ez badute.

Seigarren olatuaren gailurra

Hasierako galderara itzulita: seigarren olatuaren gailurrera iritsi gara? Positibo ofizialean iritsi gara jada, eta litekeena da, Euskal Autonomia Erkidegoaren intzidentzia-tasa aste honetan bertan egonkortzea.

Baina adierazle hauek jada ez zaizkigu balio Koronabirusaren transmisioaren berri jakiteko, inoiz baino positibo gehiago gertatzen ari baitira ofizialki kontatu gabe. Birsonkuntza-tasak ere ez zaigu balio seigarren olatuaren joera iragartzeko, Eusko Jaurlaritzak positibo ofizialekin kalkulatzeko baitu balio hori.

Koronabirusaren transmisioaren benetako gailurra, positibitatea eta ospitaleratuen kopurua txikitzen hasten denean izango dugu. Hauek dira, gaur egun, transmisioaren benetako joeraren berri jakiteko erabil ditzakegun adierazleetatik bi.

Noiz joko du gailurra, benetan, transmisioak?

Omicron aldaera gurean denetik, ondorengo asteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanlearen %8a izan da, ofizialki, positibo. Azken astean bakarrik, %3,5. Baina, aipatu dugunez, benetako kutsatuak askoz ere gehiago izan dira.

Gaur egungo protokoloak, batez ere, kutsatu zaurgarriak antzemateko definitu direla kontutan hartuta, Koronabirusaren transmisioa kontrolik gabe hedatuko da, kutsatzeko beste inor aurkitzeko zailtasunak topatzen ez dituen bitartean. Oraingo transmisioa horren handia izanik, litekeena da gailurrera, benetako gailurrera, ondorengo asteetan iristea.

Bitartean, ospitaleratu eta hildako kopurua handitzen joango da. Eta gailurrera iritsi ondoren, egoera ez da berehala bere onera itzuliko.



Azken bederatzien grafikoa mugarri berria ezarri du Koronabirusak. C19ANALISIA



Azken asteetako igoera ikusgarria izaten ari da, Urnietan eta Euskadi osoan. C19ANALISIA

Andoaingo biztanlegoaren %20a kutsatu da

Dagoeneko 3.408 lagun kutsatu dira Andoainen, pandemia abiatu zenetik

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko astetik hona hobekuntza txiki bat antzematen da, baina gerta daiteke ez izatea erabat horrela. C-19 Analisia internet atariko kudeatzaile Urko Vallejo dioenez, gakoa proben gutxitzean egon daiteke: "Positibo ofizialek behera egin dute Andoainen. Normala, autotest proba gutxiago egin baitira eta Osakidetzak ere gutxiago egin dituelako. Hala ere, biztanlegoaren %20a baino gehiago kutsatu da dagoeneko udalerrian, pandemian zehar".

Urtarrilak 2-9 asteko datuak

Covid-19aren azken asteko zenbakiak Andoainen, Urko Vallejo bidez eskuratutakoak. Datuak Eusko Jaurlaritzarenak dira, eta lanketa Vallejoarena:

- Positiboak hasieratik: 3.408 (biztanlegoaren %22,74a).

- Azkeneko asteko positiboak: 508 (aurreko astean 524).
- Inzidentzi-tasa 100.000 biztanleko 14 egunetan: 6.885,51 (aurreko astean 4.750,47).
- Inzidentzi-tasa 100.000 biztanleko 7 egunetan (x2): 6.778,76 (aurreko astean 6.992,26).

Igoera ikusgarria azken hilabetean

2021eko abenduaren 13ko datuak eskuan, Andoainen kutsatutako kopuru osoa 2.088 lagunean zen. Hilabete eskasean 2.000tik 3.400era igaro gara. Birusaren azken aldaeren eraginez edo, transmisioa bikoiztetik gertu gaudela esatera iritsi gaitezke.

Datozen asteetan ez da aldaketa handirik espero, eta dozenaka herrikide gehiago kutsatzea espero da. Egoera larrikeria igoarazten ez duten bitartean, gaitzerdi.

Urnietako biztanlegoaren %24a kutsatu da

Azken asteetan nabarmen igo da kasu positiboen agerpena, udalerrian

Erredakzioa URNIETA

Iraganean Urnietan gogor kolpatu zuen Koronabirusak, eta azken olatu honetan Urnieta ez da okerren egon den udalerria. Gaurkoz Gipuzkoaren batz bestekoaren azpitik dago. Andoainera begira jarrita, azarotik hona Andoaingo askoz egoera okerragoa izan da. Hala eta guztiz ere, kutsatzeen bizkortasuna areagotu egin da, eta dagoeneko lau urnietarretik bat kutsatu egin dela esan genezake.

Urtarrilak 2-9 asteko datuak

Hobekuntza bat eman da, baina ez da ahaztu behar tartean jai-egunak izan direla eta ondorioz proba gutxiago egin direla. Beraz, proba gutxiago egitean positiboen kopurua ere jaitsi egingen da.

Datuak Eusko Jaurlaritzarenak dira, eta lanketa Vallejoarena:

- Positiboak hasieratik: 1.499 (biztanlegoaren %24,14a).
- Azkeneko asteko positiboak: 178 (aurreko astean 196).
- Inzidentzi-tasa 100.000 biztanleko 14 egunetan: 6.023,51 (aurreko astean 4.493,48).
- Inzidentzi-tasa 100.000 biztanleko 7 egunetan (x2): 5.733,61 (aurreko astean 6.313,42).

1000 kutsatzetik 1500era, hilabete eskaseko epean

Kasu positiboen hazkunde handia eman da azken asteetan. Abenduaren hasieran Urnietak pandemia hasi zeneko 1.000 kutsatuen langa gainditu zuela argitara eman zuen Aiurri astekariak. Hilabete eskaseko epean %50 igo da kopuru hori, 1.500eko langara gerturatzeraino. Euskadiko eta Gipuzkoako joerari jarraituz gero, igoerak ez du oraingoz etenaldirik izango.

Adinekoengan eta gaixo kronikoengan arreta berezia

Osasun Sailak kontaktu estuen definizioa zehaztu du, pertsona zaurgarriak bakarrik kontutan hartuz

Erredakzioa URNIETA

Orokorrean birusa arin igarotzen delako, eta ziurrenik baliabide aldetik ere eskas dabilatzalako, Osasun Sailak protokolo aldaketa berria iragarri du. Oraingoan kontaktu estuen definizioari dagokionez: "Orain arte kasu positibo baten kontaktu estutzat jotzen diren pertsonak guztiei eskatu izan zaie Osakidetzari jakinarazteko. Orain, berri, talde hori mugatu egingo da, eta kolektibo zaurgarrietako kontaktu estuei baino ez zaie egingo proba diagnostikoa".

Eta egoera larria pairatzetik kanpo egon daitekeen giza talde handi horrek zer egin behar du. Hauxe Osasun Sailaren prentsa oharrean irakur daitekeena: "Gainerako biztanleek prebentzio-neurriak zorrotz bete behar dituzte eta erne egon, sintomak agertzen ote diren".

Kontaktu estu "berriak"

- 70 urtetik gorakoak.
- Immunodeprimituak.
- Haurdun daudenak.
- Txertoa jarri gabekoak.
- Gaixotasun kronikoa dutenak (bilakaera luzeko diabetesa, gaixotasun hepatiko edo giltzurrunetako gaixotasun kronikoa...).

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Solbuespenik gabe.

**TELORA JAIGUTAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzea**

**HAIRAPATZE
EGOKIAK**

**IGOGAILUAK
ZARATIAK**

365/365/7

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
948 870 917

bertako
www.bertako.eus

Xabier Lasa ANDOAIN

Inviernos frente al mar izan zen bere lehen liburua, 2019an kaleratu zuena. Tudurik esaldi murrizteaz egoerak eta sentimenduak deskribatzea du gogoko.

Zer moduz joan zen liburuaren aurkezpena Basteron?

Ez zen batere klasikoa izan, oso urrun Basteron egiten diren liburu-aurkezpenen edo hitzaldien formatu tradizionaletik. Ohea, leihoa, loreak... denetik jarri genuen eszenategian, eta zenbait poesia errezeitzea ere egokitu zitzaidan. Nerea Rodríguezek aurkezle lanak egin zituen, eta jendaurreko gauzetarako daukan etorri eta graziari esker, pozik geratu nintzen emaitzarekin; liburu bat aurkeztera doan edozein egile asebetetzeko modukoa izan zen zinez.

Nolanahi ere, pozgarriena bertaratu zen publikoa izan zen, ezagunak gehienak. Interesa jarri zuten, eta pena eman zidan ezin izan nituelako behar bezala atenditu ekitaldia bukatu ostean eskaintza baten bila hurbildu zitzaizkidan lagun guztiak.

Zer moduzko iritziak jaso dituzu geroztik?

Aurreneko liburuarekin jende ugariaren iritzi eta kritikak jaso nituen bezala, oraingoan gehiago ari zait kostatzen irakurlearekin feedback-a lortzea. Denbora eman beharko zaie, irakur dezaten. Egia esan, nik ere ez diet erraz jartzen askori; Sorabillan bizi naiz, ez naiz herrira gehiegi gerturatzen, gutxiago pandemia dela-eta. Auzoko lagun batzuekin aisa geratzen naiz tarteka, eta liburuako kapituluak buruz aritzen gara hizketan. Izugarri gustatu zaiela aitortu didate.

Lau kapituluetan sailkatu duzu poema liburua.

Halaxe da, eta emakumeak dira protagonista denetan. Hots, Alzheimerra jasaten duen nire ama, etxean sexu-abusuak jasaten dituen Alexandra, neu eta Kotoiaren Emakumeak (Andoingo eta Bergarako ehungintzako langile ohiak).

Batek baino gehiagok adieraziko zizun poesiekin biluztu egin zarela sentimendu pertsonalen ikuspegitik.

Aurkezpenean bertan esan zidan horixe Rodríguezek, eta baita galdetu ea horrela ez ote neukan beldurrik gizaki hauskorregi gisa agertzeko. Bada, ez dut uste inorentzat kaltegarria behar

"Bizitzaren aurpegi krudela samurtzeko darabilt poesia"

NEREA TUDURI ANDOINGO IDAZLEA

Andoaindarrak *No hay agua para las flores* poesia liburua aurkeztu zuen Basteroko ekitaldi aretoan azaroaren 4an. Tuduriren bigarren liburua da honako hau



Nerea Tuduri idazlea. AIURRI

"LAU KAPITULUTAN BANATU DUT LIBURUA, GUZTIETAN EMAKUMEAK DIRA PROTAGONISTA"

"NI NAIZEN BEZALA AGERTZEN NAIZ LIBURUKO ZENBAIT POEMETAN"

duenik izan zure sentimenduak publikoki adieraztea, baldin eta barru-barrutik eta zintzoki irreten bazaizkizu. Hori ez nuke nahastuko sare sozialetan gertatzen ari denarekin, nola gusatzen zaigun irribarretsu agertzea, zoriontsuak bagina bezala; jokabide horrek zerikusi gehiago dauka batzuen exhibizionismoarekin eta besteen vouyerismoarekin.

Azken batean, iruditzen zait ni naizen bezala agertzen naizela zenbait poemetan, biluztu egiten naizela emozionalki, eta jada hortik aurrera ezin dudala izurik sentitu inork min egin diezadan.

"Ez dago urik loreentzat" etsipena darion titulua jarri diozu liburuari.

Bizitzako hainbat aurpegi krudel samurtzeko baliagarri zait poesia. Nahiz eta poesia tristeziak asko mintzatu, gero aukera ematen dizu hitz edo esaldi-joko jakin batzuekin itxaropenezko pintzeladak marrazteko, erreallitate ilun hori edertzeko eta politago egiteko asmoz. Beraz, liburuan egoera gogorrek deskribatzeaz gain, gero horiek samurtzen ere saiatu naiz.

Alzheimerra daukan Pakita, zure ama, da lehen kapituluaren protagonista.

Poemetan islatu nahi izan dut bion arteko harremanetan zenbateraino inpaktatu duen pandemiak. Bera Zizurkileko zaintza-egoitzan bizi da, eta oso

gutxitan ikusi ahal izan gara azken aldian. Egundoko premia sentitu dut bera ikusteko, bere begiei begiratzeko, mintzatzeko, ukitzeko, laztantzeko... Eta batez ere, zenbat maite dudan emateko aditzera. Azken aldian sekula baino gehiago konturatu naiz gizakiok zeinen hotzak garen sentimenduei hitzak jartzekoan; bikoteaz aparte, gertukoiei zenbat kostatzen zaigun adieraztea maite ditugula...

Beraz, amarekin sentitzen dudana harreman berezitik eta maitasunaren adierazpenaren inguruko hausnarketatik sortuak dira poesiak lehen kapitulu horretan.

Hitz bakanak erabiliz, bikain deskribatzen duzu etxean sexu-abusuak jasaten dituen gazte baten egoera, bigarren kapituluaren...

Iritzi berbera eman dit aditzera batek baino gehiagok. Gau batean idatzi nuen; etxean iraganean sexu-abusuak jasan zituen emakume batek telebistan eman zuen testigantza izan nuen inspirazio-iturri. Protagonista, Alexandra gau horretan jaio, bizi eta hil zen niretzat. Amaiera etsigarria eman nion kapituluari, lehenbiziko idatzi aldian. Baina pentsatzen jarrita, Alexandraren istorioak etsipenetik itxaropenerako mezua zabaltzea merezi zuela iruditu zitzaidan. Horretan hausnartzen nebilela, Maialen Porroyk liburuan itsasteko ilustrazioak erakutsi zitzaizkidan, eta hara non, kapitulu horretarako diseinatu zituen irudietatik, azkenak, istorioan irekitako zartadura latzak irudi baikor eta samur bat islatzen zuela! Hori ikusirik, nik ere tonu bereko azken mikro-poema osatu nuen.

Bestalde, kapitulu horretan erlijio kristauaren zenbait simbolo edo kontzeptu (Satan, gurutzak, otoitzak...) aipatzen ditut, eta nahita egin dut hori. Izan ere, kritika egin nahi izan diot jende fededunak batez ere iraganean eduki duen joerari: sinboloez baliatzea geure burua errugabetzeko, alegia. Gure etxean bertan bizi izan dut hori, elizara joan eta bi otoitz eginda pentsatu izan dugu aski zela arazoak edo jokabide okerrak estalita gero zitezen.

Hirugarren kapitulua, nahiko autobiografikoa dela dirudi...

Bai, badauka horretatik zer edo zer. Lehenengo liburuaren ildotik jo dut, eta nire gauzak, hots,

bikotearekin harremanak, sentimendu pertsonalak, kezak eta ahuleziak, oporretako oroitzapenak... ditut hizpide. Konparazio batera, abesti batzuk entzunez, nola joaten zaizun burua; hasten zara Chavel Vargas edo Guns N' Roses entzuten, eta kantariak ahoskatzen duten esaldi jakin bati tiraka hasten zara, eta irudimenak poema berri bat sortzen dizu. Musika-rik gabeko abesti berri bat eratu zaizu oharkabea, azken batean.

"Kotoiaren Emakumeak" proiektuko emakumeak dituzu mintzagai azken kapitulu.

Andoaingo eta Bergaran ehungintzako industrian lan egin zuten emakumeak gogoratzen dituen proiektuan parte hartzeko zoria eduki dut azken aldian, eta bizitzan gertatu zaidan bizipenik aberasgarrienetakoa izan da. Egundoko ikasketa izan da niretzat, emakume langile horiek ezagutzea. Eskasia eta lan baldintza latzak gazte-gaztetatik sufritu arren, transmititzen duten bizi-pozak ez dauka preziorik! Gaitasun miresgarria daukate bizpahiru esaldietan deskribatzeko zeinen latza izan zen euren iragana, eta segituan, luzaz kontatzeko bizi izan zituzten une alai eta gozagarriak.

Nire antzera, horiek ere ez dute erreparorik biluzteko; beren etxeko eta bizitzako sukaldaraino sartzeko gonbidatu naute, eta oso identifikatuta sentitu naiz beraiekin.

Azpimarratzekoak dira Miren Porroy ilustratzailearen ilustrazioak.

Berealdiko sormen-lana egin du Mirenek. Poemetan aipatzen diren hainbat elementu (malkoak, leihoa, oinetakoak ohe azpian, erlojua, zimeldutako loreak, mezua botila barruan, ehundegietako irazkia eta trama...) perfekzioz interpretatu eta islatu ditu orriz-orri. Arrosa edo salmoi kolorea erabili du batik bat, eta argitasuna itsatsi dio nik poemetan proiektatu dudana iluntasunari.

Anne Galarragaren maketazio lana ere ez nuke ahaztu nahi. Bete-betea asmatu du formatuarekin, letra tipoarekin eta mikro-poemetako hitzak han hemen modu askean ipintzerakoan.

Gutxitan baloratzen da ilustratzaileen lana.

Argi dago nola gutxien dugu sorkuntza hori. Nerea Rodrigue-

zek Mireni zera galdetu zion liburuaren aurkezpenean: "zer erantzungo zenidake, esango banizu marrazkiak egin dituzula?". Mirenek beste galdera batekin erantzun zion: "eta zer erantzungo lidake Nereak, esango banio bere poemak hitzak besterik ez direla?".

Poesiarekin ere antzekoa gertatzen da...

Jendeak jakingo balu zenbat lan eta buruhauste dagoen mikro-poesia bakoitzaren atzean! Nire kasuan, perfekzionista samarra naizelarik, obsesiboa bihurtzen zait maiz sormen prozesua: igual idazten dut testu bat, irakurtzen dut, zakarrontzira botatzen dut orria, berriro jasotzen dut zakarrontzitik, berridazten dut gainetik... Kaleratu dudana liburu berrirakurriko banu oraintxe, seguru aldaketak egingo nizkiokeela!

Ez al dizu tentatzen narrazioa (ipui-na, nobela...) jorratzeak?

Idatzi izan ditut ipuin laburrak Hementxe aldizkarian, baina ez da nire indar-gunea. Burua ordenatuta behar duzu eduki, eta kaos bat naiz. Oso kaotikoa naiz, irudimena borborka jartzen zait, eta ez nintzateke kapaz izango trama batean biltzeko buruan dauzkadan ideia guztiak. Argi daukat poesiaren formatuarekin moldatzen naizela egoki.

Bi liburu idatzirik, estilo propioa finkatu duzula esan daiteke?

Baietz esango nuke. Poeta ugari irakurtzen ditut eta forma-kuntza ikastaroak egin izan ditut; heldutasun puntu bat lortu dut, eta iruditzen zait hori antzematen dela bigarren liburuan. Hitz gutxi erabiliz sentimenduak eta egoerak deskribatzeko gaitasuna bilatzen dut, azken batean. Baten batek esan dezake estilo hori honako edo halako idazlearena dela. Izan liteke, zergatik ez! Izan ere, denok baitaukagu guretik eta irakurtzen dugunetik.

Hirugarren poema liburu bati ekingo zenion honezkero...

Badaukat burutazioen bat, baina denbora eta lanketa eskatzen du. Urteak beharko ditut gauzatzeko, batez ere dokumentazio eta ikerketa lanak eskatzen dizkidalako. Gainera, gaztelaniaz ez ezik euskaraz ere izatea nahi nuke. Bien bitartean, poesia-errezitaldiaren ideia dabilkit buruan, musika eta poesia batuz ikusleentzat aparteko giro bat sortuko lukeen ikuskizuna, alegia.



Azaroaren 4an izan zen liburuaren aurkezpena. Andoaingo Delgado, Stop eta Ernaitza liburu-dendetan salgai dago. AIURRI

ERRAZTASUNA

INBERTSIOA

AURREZPENA

EROSOTASUNA



ABIATUrekin, askoz gehiago!

A-636 Beasain-Bergara

autobian ere bai.

Urtarrilaren 18an jartzen da abian **A-636 Beasain-Bergara** autobio bidesari berria.

Ibilgailu guztiek nahitaez ordaindu beharko dute, motozikletek izan ezik. Bidesaria **FREE FLOW** sistema bidez, hau da, matrikula irakurtzeko arku bidez kudeatuko da.

Gipuzkoan bizi diren autobioaren erabiltzaileentzat aukerarik onena **BIDEGIren ABIATU** gailua edukitzea da. Gainerakoentzat, nahikoa izango da edozein **VIA-T** gailu edukitzea.

✓ **AURREZPEN HANDIAGOA**
(ABIATUrekin soilik)
Tartekako deskontuak.
Hileko gehiengo gastua.

✓ **INBERTSIO HANDIAGOA**
Bildutako dirua errepidea hobetzeko eta mantentzeko erabiliko da.

ABIATU*ri* eta bidesari berriari buruzko informazio gehiago:

www.bidegi.eus

☎ 943 105 106
✉ info@bidegi.eus



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Gu hiltzen gara



UZE taldekoak 2019ko irteera batean. UZE

Gu, bizikleta gainean goazenak hiltzen gara.

Auto gidariari 10, 20 segundo, minutu erdia lapurtu diogulako hiltzen gara.

Errespetatzen ez gaituztelako hiltzen gara. Edo gaituzte. Ez dakit bietako zein aditz erabili.

Adibideak, mila, edozein egunetan, edozein ordutan, edozein tokitan.

Urtarrilak 2. Lau lagun bizikletan patxada ederrean, kostako bidetik. Urnieta, Zarautz, Meaga, Zumaia eta buelta. Aginatik Usurbilera, binako leerroan. Motor bat ziztu bizian, eta kamioiek aurreratzen zaituztenean gertatzen den zabu arriskutsu hori. Motorra, azkar, guregandik oso gertu pasa zen, beste errail osoa libre zuenean. Oihu egin diogu. Zertarako? Harropuzkeri keinua.

Metro eta erdiko tartea uztea gehiegi irudituko zitzaion... Gidarien gehiengoak errespetatzen gaitu, baina badira gorroto gaituzten batzuk. Errepidean ibiltzeko eskubiderik ez dugula pentsatzen dutenak, errepidea motordun ibilgailuena delako. Zenbatetan entzun dugu: 'joan hadi mendira'. Amorrua jan behar...

'Ezin duzue binaka joan, auto ilarak sortzen ari bazarete'. Badakigu, gidari jauna. Badakigu, eta saiatzen gara autoek gu modu ziurrean aurreratzea, geu baikara kaltetuenak, ez zeuek, gidariak.

Lagunak, familiak, etengabe. Nolatan irteten zara errepidera,

halako arriskuarekin? Ba gus-tatzen zaigulako. Eta ez gara beldurrez irteten. Beldurrak arazoak dakartzalako. Beldurrak bazaude, ez irten. Baina beldurra naturala da. Eta da gidari batzuek oztopo gisa ikusten gaituztelako. Ez gaituztelako errepidean nahi. Edukazioa falta zaie. Zikloturistok ere beste ibilgailuek adina eskubide dugulako, errepidean ibiltzeko. Eta bai, askotan entzungo zenu-ten: 'onak zarete, bada, zikloturistak, binaka, hirunaka zoaz-tenean, edota semaforoetan gelditu gabe'. Egongo dira, ziur. Haiek ere gaizki.

Patxi Vila txirrindulari ohiak, egun Movistar taldeko kirol zuzendari denak sareraturtako txioak ekarri digu azken herio-tza. Gaintxurizketa gainean, ziurrenik trafikoko gehien pasatzen den Gipuzkoako errepidea. 2013az geroztik bertan bidegorri bat eraikitzeke konpromisoa hartua omen dute erakundeek. Non dira, erakunde horiek? Zergatik ez dute bidegorria egin? Bertatik ehunka zikloturista igarotzen direla jakitun, gainera. Zikloturista hori hil baino lehen ere berandu zen. Orain beranduegi.

Iaz 253 bizikleta istripu gertatu ziren Euskal Herriko errepideetan, auto, motor edo kamioiek eragindakoak. 253! Hiru egunetik bitan, istripua. Beldurra ematen duen kopurua da.

Hausnar dezagun errepidea erabiltzen dugun guztiok, baina batez ere zeuek, gidariak.

Gu baikara, hiltzen garenak.



ANDOAINGO

Andoaindik Espainikora

ZIKLO-KROSA Gipuzkoakoan irabazi eta Euskadikoan nabarmendu ostean, Andoaindik Txirrindulari Eskolarekin lasterka aritzen den Izaro Etxarri adunarrak parte hartze txukuna izan zuen. Talde gutxi izan dute horrelako ordezkaritza Espainiako txapelketetan. Oihan Mitxelena eta Xabat Zuriarrain ere Xativa aldeko proban izan ziren.



ANDOAINGO



ANDOAINGO

Amaikak bat 2 Euskalduna 2

FUTBOLA Etxetik kanpo berdinketa lortu zuen Andoaindik taldeak, eta asteburuan puntu berriak pilatzen jarraitzeko aukera izango du. Ubitarte zelaian ariko baita, Mutriku taldearen aurka. Gizonetzkoen Erregional Ohorezko Maila ligako lehen itzuliko azken jardunaldia da, eta bigarrenaren helburua argia da: Gol gutxiago jasotzea eta puntuak pilatzea.



SD EUSKALDUNA

Lidergotzari eutsi nahian

ESKUBALOIA Gipuzkoako 1. Lurraldeko senior emakumezko ligan Urnieta taldea lehen postuan dago, asteburuan Arilan aurkari zuzenaren etxean berdinketa lortu ostean (22-22). Leizaran taldeak Tolosako taldea garaitu zuen etxean (29-14). Urnietak Tolosa hartuko du asteburuan. Urnietarrak lehen postuan sailkatuta daude eta andoaindarrak 4. postuan.



UKE



Haren lagun eta gertukoek Anoetan gogoan izan zuten, Realak jokatu zuen azken partidan. REALSOCIEDAD

Jon Izagirre urnietarra, lagun askoren bihotzean

FUTBOLA Haren heriotza kolpe latza izan da urnietar eta futbolzale askorentzat. 34 urterekin heriotza aurkitu zuen moto istripuan, urtarilaren 2tik 3rako gauean. Donostian bizi zen, baina egun hauetan berriro Urnietara bizitzera etortzekoa zen

Erredakzioa URNIETA Ezustean iritsi zelako, gaztea zelako eta bereziki futbolaren munduan oso ezaguna zelako, Jon Izagirreraren heriotzak samina eragin du. Hamar egun igaro dira ezbeharra gertatu zenetik,

baina oraindik ere urnietar eta futbolzale askok oroimenean dute. Anoeta estadioan klubak eta haren lagunak omenaldi hunkigarria eskaini zioten. Baita Beasain eta Urnieta KE futbol taldeek ere. Aurreko asteburuan

bi taldeek gogoan izan zuten, partidaren hasiera. Bi taldeetako entrenatzailea izan baitzen. Antiguoko, Billabona, Gipuzkoako futbol federazioa... Gipuzkoako klub askok gogoan hartu dute urnietarra.



Kadete mailako Beasain eta Urnieta taldeen arteko partidan gogoan hartu zuten urnietarra. Bi taldeetako entrenatzailea izan zen. UKE

Azken orduak Adarramendin



Adarramendin, urtarilaren lehenean. IZAGIRRENLAGUNAK

Azken igoera Adarramendira Heriotza aurkitu baino ordu batzuk lehenago Urnietako mendi ezagunera igo zen. Argazki horrek esanahi berezia du Izagirreraren lagun eta gertukoentzat. Jakin gabe ere, haiek izan zirelako Izagirreraren azken orduak.



Adarramendin haren irudia, astebetera. IZAGIRRENLAGUNAK

Izagirre gogoan hartzeko irudia, Adarramendin Joan da Izagirre, baina haren oroimena lagun askoren gogoan iltzatuta geratuko da. Heriotzaren berri jakin eta egun gutxira, Jonen irudia ipinita zegoen Adarramendiko buzoitxoan.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 14

ANDOAIN Musika

"Kantu bat gara" disko berria aurkeztuko du Jon Maiak.
20:30 Bastero. 12 euro.

ASTEARTEA 18

ANDOAIN Opera

"Norma" tragedia lirikoa da, Vincenzo Belliniren musikarekin egindakoa.
19:30 Bastero.

OSTIRALA 21

ANDOAIN Erakusketa

Trentxiki argazki elkartearen eskutik: "Miszelanea-Trentxiki AE 10 urte". Astelehenetik ostiralera: 18:30-20:00. Asteartetan itxita. Laruntaba: 10:30-13:30 / 18:00-20:30.
Urtarrilak 21-25. Bastero.

ANDOAIN Antzerkia

ATX Teatroak bere sorreraren 10. urteurrena ospatuko du 'Lubaki lainotsua' ikuskizuna eskainiz. Drama eta umorea uztartzen dituen egitasmoa.
20:30, Bastero. 12 euro.

IGANDEA 23

URNIETA Antzerkia

"Ikimilikiliklik" antzezlan, Marie De Jongh konpainiaren eskutik.
17:30, Sarobe.



Bere hitzekin osaturiko diskoa aurkezttera dator Basterora. GALDER IZAGIRRE

ANDOAIN Kantu bat gara

Jon Maia bertsolariak hainbat musikarientzat idatzi ditu kantuen hitzak: Negu Gorriak, Gari, Mikel Urdangarin, Anari, Benito Lertxundi, Soziedad Alkoholika, Pirritx eta Porrotx, Gozategi, Ken zazpi... Goi mailako musikariez inguratua igoko da taula gainera: Pello Ramirez, Gorka Hermosa eta Nacho Soto.
Urtarrilak 14, ostirala. 20:30, Bastero Kulturgunea.



Andoaingo AEK euskaltegia Plazaola kalea 2, behean aurkitzen da.

ANDOAIN Ikastaroa

Merkatari eta ostalariei zuzenduta, euskaraz trebatzeko ikastaroa antolatatu du AEK-k. Asteazkenean aurreko saioa euskaltegian, asteazkenean behin.
Izen-ematea: Urtarrilak 10-26. Informazioa: andoain@aek.eus.


Sarrerak agortuta

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak "Kui kui" ikuskizun berria Andoainera dator. Datorren urtarilaren 29an saio bikoitza eskainiko dute, eta sarrerak azkar batean saldu dira. Lehen saioak agortu ziren lehenik, eta bide beretik joan dira bigarren saioak. Okerrik ezean, bi emanaldi horiek DVD grabaketa egiteko aukera baliatuko du Katxiporreta konpainiak.



MAXIXATZEN

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


The King's Man: La primera misión.
Larunbata, 15. 19:30, 22:00.
Igandea, 16. 19:30.
Astelehena, 17. 19:30, 22:00.

Canta 2.

Haurrentzat.
Larunbata, 15. 17:00.
Igandea, 16. 17:00.

DATOZENAK

El amor en su lugar.
Trash.
Urtarrilaren 22tik 24ra.



SINOPSISIA



THE KING'S MAN: LA PRIMERA MISIÓN

Zuzendaria: Matthew Vaughn. **Aktoreak:** Harris Dickinson, Ralph Fiennes, Aaron Taylor-Johnson, Charles Dance, Daniel Brühl, Gemma Arterton. **Herrialdea:** Britainia Handia (2020). **Generoa:** Thriller, Akzioa, Komedia. **Iraupena:** 130 minutu.

Akzioa eta umorea, biak batera

Tiranoek eta historiako kriminalik gaiztoenak osatutako talde bat milioika pertsona hilko dituen gerra bat pizteko

elkartzen denean, gizon batek erlojupean borrokatu beharko du haiek geldiarazteko. Kingsman sagaren hirugarren atala da.

SINOPSISIA



CANTA 2

Zuzendaria: Garth Jennings. **Herrialdea:** AEB (2021). **Generoa:** Marrakzi bizidunak. **Iraupena:** 109 m. **Iraupena:** Gaztelania.

Musika ardatz duen filma

Buster Moonek eta bere lagunek Clay Calloway rock izarra konbentzitu behar dute beraiekin bat egin dezan

ikuskizun berri baten estreinaldian. Musika garaikideaz gozatzeko filma, familia osoarentzat egokituta.

Bus zerbitzua hobetzeko sinadura-bilketa

lazko uztalean Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa sailak bus zerbitzuen eraberritzea gauzatu zuen, eta horren ondorioz Beterri-Buruntza eskualdean kexa asko izan da. Andoain sinadura-bilketari ekin diote

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Herritar talde batek uztailetik hona indarrean dagoen bus kontzesio edo emakida berriarekin desadostasuna agertu du, eta hainbat proposamen egin nahi dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proposamen horiek bastezko sinadura kanpainari ekin diote.

Proposamen landu bat aurkeztu dute, Julien Lorenzo andoaindarrak bideratu duena. Bertan ibilbideei eta ordutegiei buruzko aldaketak egitea proposatzen da. Besteak beste, lehengo maiztasunei eustea edota hainbat ibilbide Goikoplazatik ez baizik eta Sorabillatik abiatzea.

Txosten horretan honako aldarrikapena jasotzen da: "Autobus bidezko garraio publikoa erakargarria eskaini nahi bada, maiztasun erakargarriak eta ordutegi zentzudunak eskaini behar dira, jendeari erraztasunak emanez honen erabilera areagotzeko aukerak zabalduz".

Sinadurak biltzeko orriak merkalguneetan

Dagoeneko udalerrian zehar hainbat tokitan jarrita dauden orrietan sinadura eman daiteke. Hauxe, zerrenda:

- Coviran Karrika.
- Tahona okindegi-kafetegia.
- Ernaitza liburudenda.
- Santa Krutz frutategia.
- Lopetegi harategia.
- Labores Arantza.
- Coaliment Bazkardo janari-denda.
- Roalco janaridenda.
- Elizondo taberna.
- Stop liburudenda.

Sinadurak Foru Aldundiari helaraziko zaizkio.



Sinadurak biltzeko orriak. AIURRI

"MAIZTASUN ERAKARGARRIAK ETA ZENTZUZKO ORDUTEGIA ESKANI BEHAR DIRA"

"JENDEARI ERRAZTASUNAK EMAN BEHAR ZAIZKIO ERABILERARAKO AUKERAK ZABALDUZ"

Denda Berriren Batzar Orokorra

Aiurri komunitatea

Denda Berri elkarteak | URNIETA

Datorren 2022ko urtarrilaren 29an, Egoitzaren lokaletan ospatuko den Ohiko Batzar Orokorrerako deialdia luzatzen da, 17:00etan 1. deialdia eta 17:30ean bigarrena, eta hurrengo gai-zerrendarekin:

- 2021eko diru-sarrera eta gastuen balantzearen aurkezpena eta onarpena hala badagokio.
- 2022rako aktibitate programa, eta gastuen aurrekontua.
- Elkartearen Lehendakaria hautatzeko dei egingo den ez ohiko Batzar Orokorrerako prozedura, araudiak eta egutegiaren berri ematea, eta onarpena hala badagokio.
- 4. Galderak eta eskaerak.

Garapen agentzia

Erredakzioa ANDOAIN

Beterri-Buruntzako garapen agentziak urrats sendoa eman dezake etorkizunari begira, datorren urtarrilaren 17rako iragarrita dagoen eratze bilera aurrera ateratzen bada. Orain arte "Beterri-Buruntzako Udalak"

izenpean garapen agentziaren ordezkoi lanak burutzen aritu dira, eta ibilbide horretan Andoaingo Udalak pisu nabarmena izan du.

Urtarrilaren 17an Hernaniko Udaletxean deituta daude eskualde osoko agintariak. 12:00tan hasiko den bileran Beterri-Buruntzako Mankomunitatea eta Batzar Orokorra eratze deklazioa aztergai izango dute. Aro berri bat hastear den seinalea izango da.

Urnietako kirol instalakuntzak

Erredakzioa URNIETA

Eusko Jaurlaritzak berriki ezarri duen protokolo berriaren arabera, barrualdeko kirol jardueren aforoa %60ra murriztuko da. Eta aldagelen erabilera zertxobait gehiago murriztuko da, %50ean zehazki. Horrek eragin zuzena du Urnietako behin behineko kirol instalakuntzatan eta horrexegatik "Udalak aurretiko hitzordua hartzeko derrigortasuna ezarriko du berriro". Urtarrilaren 13tik aurrera, zehazki.

Kiroldegiko erabiltzaileentzat alde aurretiko hitzordua eskatzeko bideak honakoak dira:

- Urnieta APP.
- Urnieta.eus.
- 943 00 83 28 telefono zenbakia.



Antzezlan. MARIE DE JONGH

'Ikimilikiliklik' haur antzerki emanaldia Saroben


Datorren urtarrilaren 23an izango da Urnietan, arratsaldeko 17:30ean hasita

Erredakzioa URNIETA

Marie de Jongh konpainiak antzezlan berriena eskainiko du Urnietan. Horrela azaldu dute ekimena: "gure proiektuaren protagonistak sorginei sekulako beldurra zien baina denborarekin sorgin bihurtu den neskato bat da". Obraren bigarren berrikuntza, berriz, hitza da: "Betiere mutu jardun dugu. Oraingo honetan, ordea, istorioa kontatzeko modurik egokiena hitza erabiliz izango dela jakinik, hura baliatzea deliberatu dugu".

Beldurraren inguruko hausnarketa bat partekatu nahi dute ikusleekin.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Eukene Ariztimuño
Zorionak Eukene!
Urtarrilaren 10ean 12 urte bete zenituen. Egun polita igaroko zenuelakoan... Muxuak, etxeokak.



URNIETA
Enara
Zorionak Enara!
kuadrillako zaharrenari, jarraitu bazterrak nahasten! Muxu potolo bat Korrokaluen partez!

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza **edo mintz-lagun** bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez

/ danesaz aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexo-logist45@yahoo.co.uk**

PARTE

HARTZEKO

Email: **diseinua@aiurri.eus**
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrira: **Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN**

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietan: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.



Urnietako
udala



Buruntza taberna-jatetxea Kaletxikin dago (tel.: 688 865 385 erreserbatarako). Bestalde, pizzeria egunero dago irekita, 19:00-23:00 (tel.: 843 674 245). AIURRI

"Sukaldaritza tradizionalagatik nabarmentzen da Buruntza"

MIREN ARGÍ WEILL ETA KARMELE TELLERIA BURUNTZA JATETXEKO LANGILEAK
Buruntza jatetxeak ateak berriro ireki ditu, denboraldi batez itxita egon ostean. Miren Argi Weill eta Karmele Telleria lanean ari dira, tabernan zein sukaldean eta jangelan

Xabier Lasa ANDOAIN

Kaletxikin dagoen taberna-jatetxearen bere betiko normaltasuna berreskuratzeko gogoz ekin zioten, abenduan.

Noiz ireki zenuten?

Abenduaren 7an. Berez, lau langilek osatu dugu Buruntzako lan taldea Paulok erretiroa hartu zuenetik, baina oraingoz bi hasi gara lanean. ERTEn bolada egin dugu lauok, eta orain Karmele eta biok hasi gara lanean. Gauzak txukun joan ahala, dena lehengoratzea eta lauok lehengo

martxari heltzea izango litzateke pozgarriena.

Buruntza jatetxearen betiko martxari heldu nahi diozue.

Bai, halaxe da. Esan beharrik ez dago pandemiak zeinen panorama traketsa eragin digun ostalaritza sektoreko. Nolanahi ere, etxean geratzea da hartu daitekeen azkeneko erabakia, eta horrexegatik, Buruntzako ateak berriro zabaltzera animatu gara.

Horrela, 08:30an zabaltzen ditugu ateak, eta gabeen, bezeroen

arabera itxi. Astelehenetik larunbata bitarte, igandea jai egun hartuta. Bazkaritan eguneko menua eskaintzen dugu, eta afariak eskaini ostean itxi. Bazkaria eta afari bereziak (bataioak, jaunartzeak, enpresakoak...) ere

"OSO POLIKI BADA ERE, BETIKO BEZEROAK HURBILTZEN HASI ZAIZKIGU"

hartzen ditugu. Ahaztu gabe ogitartekoak, sandwichak, hamburgeresak, pizzak, urtebetetzeak... Bestalde, pizzeria ere martxan jarri dugu. Aipatzekoa ere bada ostiraletan, 19:00etatik 21:00etara pintxo-potea berriro martxan jarri dugula.

Sukaldaritza tradizionalari eusten diozue.

Jakina baietz! Bertako produktuekin landutako sukalde tradizionalagatik nabarmendu izan da Buruntza betidanik, eta ez diogu uko egiten horri. Buruntzaren ezaugarri propioa da!

Betiko bezeroak nahiz berriak erakarri nahian zabiltzate...

Ea lehengo mugimendua berriro sortzen den nahiko genuke lehenbizi, eta ea gehitzen den, noski. Hori da gure itxaropena! Ez dago erreza gauza, pandemia dela-eta. Nolanahi ere, osasun-krisialdia zabaldu aurretik ere

sumatzen ari ginen gizartean, orohar, ohitura sozialak eraldatzen ari zirela, sozializazio joerak aldatzen ari zirela, eta batik bat taberna-giroaren kalteetan. Orain bizi dugun salbuespeneko egoerak errealtate hori bistaratu ez ezik areagotu ere egin du. Azterketa horri, Kaletxiki auzoaren erretratu partikularra gehitu beharko genioke: adinez aurrera dozean auzotarrak bizi dira gehienbat, eta gazte gutxi etorri da hona bizitzera azken urtetan. Esate batera, nahiko argi dago Zumea inguruko taberne bizi duten arrakasta nork eragin duen, haurrak dituzten gazteak gertu bizitzeak, alegia.

Buruntza jatetxea auzoko eta herriko bizilagun askoren topagunea izan da betidanik.

Inguruko lantegietako langileentzat ere betiko txokoa izan da, bai, kontsumizioren bat hartzeko edo otordua egiteko; esate batera, La Salle Berrozpe ikastetxeko langile edo gurasoentzat, edo Martin Ugalde Kultur Parkeko langileentzat. Abenduaren 7an zabaldu genituen ateak, eta oso poliki bada ere, betiko bezeroak hurbiltzen hasi zaizkigu. Ahoz-ahokoa da kanpaina eraginkorrena guretzat.

Terrazei heldu diote azken aldian Andoaingo taberna askok.

Bai, guretzat irtenbide polita izan zitekeen. Eta saiatu gara, baina ez dugu Udalaren baimeunik lortu. Bi aukera ikusi genituen. Batetik, jatetxe aurreko espaloian mahai batzuk jartzea, baina adierazi zaigunez legeak eskuan ez dago nahiko espaziorik. Bestetik, aparkaleku bat libratu eta hortxe terraza jartzea, baina kasu hori ere ezinezkoa dela erantzun digute, errepidea bi norabidekoa delako.



andoaINDARRA
euskaraz